


Kutsa nazazu, mesedez



Ezkerrean, prostituta bat Pariseko kaleetan, Lehen Mundu Gerraren urteetan. Alboan, umorezko posta txartela, soldaduak burdel batean irudikatzen dituen.

LODZ (EGUNGO POLONIA), 1917KO MARTXOA. Alemaniar okupatzaileek prostituzioa arautzea erabaki zuten, fronteko beste hainbat tokitan alde batekoek zein beste-koek egin bezala. Astero azterketa medikua pasa behar zuten prostitutek, eta tarifa finkoak ezarri behar izan zituzten: gau osoak 30 marko balio zuen; gauaz bizpahiru ordu eman nahi zituenak 20 marko ordaindu behar zituen; ordubete nahikoa zuenak, aldiz, hamar marko; eta tarifa merkeena egunekoa zen, hamar markoren truke prostitutarekin nahi adina denbora eman baitzeza- keten goizeko 9etan hasi eta arratsaldeko 6ak bitartean.

Gerra eta prostituzioa elkarri lotuta joan dira beti. Eskaera handitzen denez, negozioarako onak dira gataz- kak. Baina eskaerak gora egin ahala sexu langileen lan baldintzek behera egin ohi dute: higieena, bezeroak, baliabideen eskuragarritasuna... Sexu bidez kutsatzen diren gaixotasunentzat haztegi ezin hobe.

Atarian aipatu bezala, Lehen Mundu Gerran ere agintari militarrek kutsatze arriskua txikitzen ahalegin- du ziren. Haien mendeko soldadu askok, ordea, kontra- ko bidea hartu zuten. Gerra Handiaren izugarrikeriek

soldadu/prostituta binomioaren ordura arteko logika irauli zuten: sexu bidezko eritasunak zituzten prostitu- tak garestiagoak ziren astero azterketa medikua gaindi- tzen zuten neska osasuntsuago haiek baino. Eskaera eta eskaintzaren legeak ezarri zituen prezioak beste behin. Izan ere, prostituta gaixoen eskaera izugarri hazi zen, soldaduek, sexua baino gehiago, gaitz benereok erosi nahi zituztelako. Kutsatuta, gaixotasunagatiko baimena emango zieten eta ez ziren lubakietara itzuliko.

Horrenbestez, prostituzioa zerbitzu bikoitza eskain- tzen hasi zen: sexua eta frontea saihesteko aitzakiak. Eta geroz eta bezero gehiago sexuaren partea bazter- tzen hasi ziren, zuzenean infekzioaren bila joateko. Hala, merkatu higuigarri eta etekintsua sortu zen: gonorrrea zornea, esaterako, potetxoetan bilduta sal- tzen zuten, soldaduek zuzenean genitaletan igurtzi zezaten. Eta prostitutak ez ziren hornitzaile bakarrak; tuberkulosoek espektoratuta- ko mukien eskaerak ere gora egin zuen, adibidez. Edozer gauza zen frontera joatea baino hobe. ■



Arrastoak

Ibilaldi birtuala Bartzelona erromatarrean



IULIA AUGUSTA FAVENTIA PATERNA BARCINO erromatar kolonian, hau da, K.o. III. mendeko Bartzelonan birtualki ibiltzeko *Barcino 3D* aplikazioa eskura- garri dago telefono eta tabletetan erabil- tzeko, katalanez, gaztelaz zein ingele- sez. Bartzelonako Udaleko Arkeologia Zerbitzuak 2012an abiarazi zuen Bârçi-

no Plana, hiri erromatarrari buruzko ikerketa, indusketa, dokumentazio eta hedapen lanak egiteko, eta ekimen horren barruan garatu dute aplikazioa.

Ezkerreko irudian, esaterako, hiriko gunen nagusietakoa ikus daiteke, Augustoren tenplua, Barcinoko foroa- ren erdialdean. ■